

Goi

Goierritarra aldizkaria

381. zenbakia 2010eko maiatzak 21



**MUSHU
PAKARI
ELKARTEA**

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIA

25 URTE SEGURAN



VIAJES
ABIO

BIDAIK

Kale Nagusia, 38 Beasain | T 943 80 53 11 | F 943 80 56 42 | abio@abio.es
www.abio.es

over Urraki

Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea

BEASAIN

Tel.: 943 80 40 15

Faxa: 943 80 55 79

urraki@over.es

www.over.es

ONGI ETORRI!

BANATOR!!



Aurki ikusiko nauzu kalean

MATERIA ORGANÍKOA

KONPOST BIHURTZEKO BILKETA BERRIA

Aurki informazio gehiago



SASIETA
MANKOMUNITATEA

www.sasieta.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Joxepa Madariaga

Inguruan geroz eta maizago entzuten ditudan bi iritzi/komentarioekin kezkatzen hasia nagok: bat, "hilero soldata emango balidate, lanik egin gabe gustura biziko nintzateke. Soldata lortzeagatik joaten naiz lanera!" Eta bi, "orain denborarik ez dut eta jubilatzen naizenean egiteko utziak baditut mila lan eta plan..."

Normalak al dituk komentario horiek?, batek edo bik ez, jende askok pentsatzen al du horrela?

Eta hurrena burura datorkidan galdera: normala al naiz ni, gustura nagoelako egiten dudana lanarekin, gustura joaten naizelako lanera, nahiz eta askotan izan errealdia, askotan ibili lanez gainezka, askotan falta izan gustuko gauzak egiteko denbora...?

Egunean egunekoa bizitzea, egunean egunekoa gozatea zer den ez zekiagu, ez diagu ikasi, hori ez zaiguk erakutsi. Esan iezaguk, Iñaxio, partaide garen komunitatean

Egunean egunekoa bizitzea, egunean egunekoa gozatea zer den ez zekiagu, ez diagu ikasi.

(familian, lagunartean, herrian...) errespetuan oinarrituz ondo eta pozik bizitzea zer den hirtzat.

Eta jubilatzea, laneko erretiroa, etapa berezia izango duk (oraindik iritsi ez garenok ezin esango diagu hala denik, probatu arte), noski, etapa guztiak bezala, bakoitzak baitzik bere trikimailuak. Ona duk etapa horretan ere egiteko ugari izatea, ilusioz ekitea zereginetara, baina ze zentzu dik lehenago gustura egingo genituzkeenak erretirorako uztea, ez dakigunean osasuntsu egongo garen, ez dakigunean biziko garen ere?

Hausnarketarako bideak dituk botatzen ari naizenak. Zer pentsatua ematen zidatek eta hirekin konpartitu nahi dizkiat kezkek.

Aupa Iñaxio!, iparraldeko gure adiskideei ikasi bezala, izan untsa eta bizi uros!



Inazio Usarralde

Hara, hara, Joxepa, hi esaten ari haizen hori ez al zagon estu-estu bizi-pozarekin lotuta? Baditun bai, badirenez, beti geroke utzi behar horretan, orain eta hemen bizitzen asmatzen ez dutenak. Zer esatea nahi dun, emakumea!? Ni gehiago naun bizi, pittin bat bada ere, egunero bizi behar dela pentsatzen duten horietakoa. Eta ez preseski ikaragarritzko bizi mailan, ez dun hori! Aski dun ni asetzeko etxekoekin afalorduko solasaldi gozo bat, edo lankideren batekin eskuartean genuen horri aterabideren bat aurkitu diogula ikustea, edota herrira etorri eta burua oreatzeko bueltaxka bat ematea hanka-joko lasaian, edo...

Honekin guztiarekin, ez naun ari etorkizuna erabat alboratu eta momentua zoro-zoro bizi behar dugula esan

Ni gehiago naun bizi, pittin bat bada ere, egunero bizi behar dela pentsatzen duten horietakoa.

ten, hori ere ez! Baina, bai lanean bai edozein adinetan bizitzari zukurik gehien ateratzen saiatu behar dugula. Sarri entzun izan dinagu beste hau ere: bizitza laburregia dun alferrik galtzen uzteko.

Lan kontuei dagokienez, beti pentsatu izan dinat oso oso penagarria behar duela izan giro kozkorra dagoen lantoki batean egunero zortzi ordu edo gehiago eman behar izatea. Hortik aurrera, sariari muzinik egin gabe, egunero zerbait ikasten, zerbait sortzen saiatzen naun lanean, errealdia errealdi eta nahiz dena iritsi ezinik ere maiz ibili.

Hortaz, esan dinat, bizi esaten dena, egunero bizi behar dugulako ustekoa naun, eta bizi-seinalerik bikainenetakoa zurikeriarik gabeko irribarra dela uste dudanez, hauxe opa dinat guztiontzat: izan dezagula den-denok egunero, gutxienez, irribarre gozo bat egiteko arrazoia!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Garaiz gabiltza gure ondarearen kontrako
azkenaurreko suntsipena geldiarazteko,
sistema ekonomiko ustel baten behar
aseezinari mugak jartzeko



Xabier Mendiguren Elizegi

Oraindik garaiz gaude

Aitor Aldasorori eskainia

Ia urte erdia igaro da dagoeneko, baina 2010eko egutegi bat aipatuko dizuet: Beasaingo Udalak, urtea egoki haste-ko, kalendario dotore bat oparitu zuen herritarren artean, herriko baserrietan oinarritua. Atariko, gainera, bertso bat ipini zuten, Aitor Aldasoro alkateordeak idatzia, baserrietako atee-tan zaindaria lanak egiten zituen eguzkiloreari jarria. Eskertzekoa da gure agintariekin horrenbesteko talentua eta sentiberatasuna izatea, gure hizkuntzarekin eta tradizioekin.

Egutegia, baina, ederra bezain mingarria da, eta esango dizuet zergatik. Hilabetez hilabete, aldiko baserri bat aurkeztu zaigu, kale-baserriak zehatzago esanda, eta horietako gehienak dagoeneko desagerturik daudenak: urtarrilean Barrendain, tren-geltokiaren aurrean zegoena, aspaldi eraitzia; otsailean Loinatzazpikoa, Loinazko ermitaren azpitxoan zutik jarraitzen duena, berritze-lanek bere nortasuna dexente itsusitu badute ere; martxoan Urbi eta apirilean Muttegienea, gaurko Urbietxe eta Igartetxe handiak zutitzen diren lekuan gutxi gorabehera, nik mutikotan ezagututakoak biak; maiatzean Txintxurreta, CAF zabaltzeko aspaldi botatakoa; ekainean Piparrene, uztailan Nekola eta abuztuan Mariaratz, hirurak ere azken 30 urteetan kaleak jan dituenak; irailean Usategi, Indarren handitzeak irentsi zuena, urrian Zaldizurreta, hain aspaldi ez dela oraingo herri sarrerako errotondan zegoena; azaroan Zapatari, Dolarera bidean nik txikitzen ezagututakoa, eta abenduan Agirrezabal, Andramendi inguruan oraindik tente dagoena.

Beasaindarrak ez zaretenok barkatu hainbeste izen eta xehetasun ematea, baina lezioak denentzat balio du: desarrollismoak zer ematen eta zer kentzen digun pentsarazten laguntzen baitigu horrelako ariketa batek, nolako herriak eta hiriak ari garen eraikitzen.

Hirigintzaren eta industriaren lur-gose etengabeak ekarri du baserri horiek guztiak lurrarekin berdintzea. Hala behar ote zuen? Ez beti, baina ez dut diskurtso demagogikorik egiteko asmorik, ezta negar-saio nostalgikoetan urtzeko ere. Bere

garaian egindakoa egina dago, zuzen ala oker, eta horrek ez dauka erremediorik.

Orain bertan egiten gabiltzanak arduratu behar gaitu ordea. Hainbeste kale-baserri bota direla ikusita, eta horiek herriari halako nortasuna ematen ziotela ohartuta, nik uste bidezko ondorio batera iritsi gaitezkeela: gelditzen zaigun apurra arretaz zaindu beharra. Hori egin da, esaterako, Igartzako multzoarekin. Baina Igartza horren txukun berritzea ez dadila aitzakia izan beste guztia errukirik gabe jo eta botatzeko.

Zertaz ari naizen? Beasainen momentu honetan bi baserri inguru daude arrisku gorrian: Ugartemendi auzokoak (Institutu ondoan), eta Errekarte aldekoak (San Martin baseliazako bidearen hasieran). Orain dela bost urteko arau subsidario berrietan, lehen landa-lur zirenak hiri-lur izendatu zituzten eta desjabetzak eta abarrak martxan jarri, baserriok bota eta etxebizitzak eraikitzeke. “Aurrerapenak” eskatzen zuen, nonbait. Geroztik, gainera etorri zaigun krisiak geldiarazi du txikizioa, baina mehatxua gaineen daukagu, eraikuntzaren negozioa burua altxatzen hasi bezain laster.

Horregatik esan nahi diot Aitor Aldasorori, hurrengo hauteskundeetan EAJren alkategai izango denari, eta berdinean udalean ardurak dituzten eta izango dituzten guztiei, garaiz gabiltzala gure ondarearen kontrako azkenaurreko suntsipena geldiarazteko, sistema ekonomiko ustel baten behar aseezinari mugak jartzeko, gure kultura eta iragana, hitzetan bakarrik ez, ekintzetan ere maitatzeko eta errespetatzeko.

Ugartemendi eta Errekarte Handi ez dira ageri aurtengo egutegian. Ez dakit kasualitatea izan den, ala baten batek pentsatu duen ez dela komeni txikizioaren hurrengo biktimak begien bistan erakustea, badaezpada. Edonola ere, ez nuke nahi, hemendik hogeitaz urtera, Beasainen une horretan izango den udalak beste kalendario batean baserri ordurako desagertu horiek ateratzea, eta kontzientzia oneko agintari nahiz herritarrek esatea: “Ui, ze pena, hain baserri politak... Nolatan bota ote zituzten ba?”.

Udaberria dela eta (I)

- 1 Hosto sinpleak. 2
- 2 Hosto konposatuak: hau da, hosto bakoitza, foliolo deituriko hosto txikiagoez osatzen da. 10
- 3 Ertz leunak dituzten hostoak. 3
- 4 Ertz horzdunak dituzten hostoak. 5
- 3 Ertz lobulatuak dituzten hostoak: hau da, sargune sakonak dituzten hostoak. 4
- 3 Lobulu gabeko hostoak, itxura obalatuarekin. Udaberrian iletxoak izaten dituzte ertzetan.
- 4 Esku-ahurraren itxurako hostoa, 3 edo 5 lobulu borobildu dituena.
- 4 Bost lobulu borobil baino gehiagoko hostoa. Ezkurak ematen ditu.
- 5 Hortz zorrotzak dituzten hostoak. Fruitu gorria; ez dira beti aurkitzen.
- 5 Zorrotzak ez diren hortzak dituzten hostoak. 6
- 6 Itxura obatua duten hostoak. 7
- 6 Bestelako itxura duten hostoak. 8
- 7 Txortenean bi konkorrak dituzten hostoak.
- 7 10 cm baino gehiagoko hosto luzea, hortz handi puntadunekin.
- 8 Puntan sargune txiki bat duten hosto borobilduak.
- 8 Puntan sargunerik ez duten hostoak. 9
- 9 Erronbo-itxura duten hostoak. Enbor zurixka.
- 9 Bihotz itxura duten hostoak. Gajnaldea berde distiratsua eta azpialdea argiagoa.
- 10 Ertz leunak dituzten folioloez osatutako hosto konposatuak. 11
- 10 Ertz horzdunak dituzten folioloez (7-15 kopuru artean) osatutako hosto konposatuak. Kimu beltzak.
- 11 Oinarrian bi arantza dituzten hostoak. Enborrak arrail asko ditu.
- 11 Oinarrian arantzarik ez duten hostoak. Enbor leuna. Intxaurrak ematen ditu.

Zuhaitz hostozabalak

Gure parkeak, mendiak, basoak eta abar beraien momenturik gorenean daude. Egun hauetan mendira irten eta zuhaitz desberdinak ezagutzeko hemen duzue zuhaitzen gako dikotomikoa. Lehen atal honetako pausuak jarraituaz, zuhaitz hostozabalak ezaguntzen lagundu nahi duzuegu.



JAKIN BEHARREKOAK

'Unibertsoari begira
Hubble teleskopioak hamaika argazki atera ditu azken 20 urte hauetan. Iruñako planetarioan argazki erakusketa hau ikus dezakegu ekaina arte. www.plamplonetario.org

Survival Internacional erakundeak Boskimanoen egoera salatu du.

Botswanako gobernuak boskimanoak euren erre-erbatik kanpo eduki nahi ditu, interes ekonomikoak tarteko indigena hauen eskubideak etengabe urratzen ditu. Beraien lurraldean diamante aztarnategiak daude eta hauek ustiatzeko biztanleak kanporatu nahi dituzte. Kalahari basamortuan beraien bizimodu babesteko sortu zen erre-erba baina orain erre-erba politika jarraituz ur putzuak deuseztu, mehatxuak eta abar jasan behar dituzte. 2002. urtean auzitara eraman zuten gobernu eta 2006. urtean auzia irabazi zuten. Auzitegi gorenak beraien eskubidean berretsi zituen baina gobernuak ez du kanporatze politika utzi. Erre-erbatik kanpo alkoholismoa, IHESA, tuberkulosisa eta txirotasun arazo larriak dituzte.

LIBURUA

'Ia denaren historia labur bat' Bill Bryson idazlearen liburua itzuli du Ixiar Ziak Elhuyar argitaletxearentzat. Big Bangetik hasita zientziari buruzko azalpenak aurkituko ditugu euskaratu berri duten iburu honetan.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteen bat bidali nahi baduzu:
943161244 landarlan@yahoo.es

Denetik (XXXVI)

Maizpide euskaltegia

“Gol berria Anoetan!”

Ez dira gutxi goikoa bezalakoak hitzetik hortzera erabiltzen dituzten euskaldunak. Heldu edo adinekoen artean ez dira hainbeste izango, baina gaztetxoan artean dezente! Berri samarra1 den akats honen jatorrian gaztelania dugu beste behin (irratian edo telebistan “nuevo gol en Anoeta” entzun... eta to itzulpen xelebrea!). Nola behar du? Bada, erreparatu ondorengo adibideei:

✗ *Errealak gol berria sartu du Anoetan! Agirretxe izan da gola-
ren egilea, lagunok!*¹ (*desegokia*)

✓ *Realak beste gol bat sartu du Anoetan! Agirretxek sartu du,
lagunok!* (*egokia*)

¹ Orain dela hogeit urte nekez entzungo baikenuen horrelako-
rik...

✗ *Eraso berria jasan du Barakaldoko emakume batek.* (*desego-
kia*)

Adierazi nahi dugunaren arabera...

✓ *(A) Berriro egin diote eraso Barakaldoko emakume bati.*
(*egokia*)

✓ *(B) Beste eraso bat izan da Barakaldon, bertako emakume
bati egin diotena.* (*egokia*)

Kontuz, halere, batzuetan biak egongo baitira ondo (**beste bat**
eta **berria**, alegia):

✓ *Beste proposamen bat egin dio David Cameron kontserba-
doreak Alderdi Liberal-demokratako buru den Nick Clegg-i.*
(*Aurrekoaz gain, beste bat*)

✓ *Proposamen berria egin dio David Cameron kontserbado-
reak Alderdi Liberal-demokratako buru den Nick Clegg-i.*
(*Aurreko proposamenaren ordezkoa*)

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Beste eleberri bat idatziko omen du negu uda partean gure Mariatxok!
2. Zuzendari berria izango omen du Cannes-eko Zinemaldiak.
3. Txirrindulari talde horrek beste zuzendari bat izango du; bakarrarentzat lan gehiegixto, sobra ere!
4. Bizkotxo berriaren usaina belarrietatik ere sartzen zaidala uste dut...

OHARRA: denak zuzenak, arraioa!

“Beste gola sartu diote Bilboko Athletic-i”

Tira, bigarren hau ez da, zorionez, lehenengoa bezain “ezagu-
na”, baina bada Goierri horrela erabiltzen duenik! Aurrekoan bezalaxe, **beste bat** behar du!

✗ *Beste gola sartu diote Bilboko Athletic-i.* (*desegokia*)

✓ *Beste gol bat sartu diote Bilboko Athletic-i.* (*egokia*)

Horrek ez du esan nahi “beste gola” beti gaizki egongo denik. Futbol-partidaren batean, adibidez, talderen batek bigarren gola sartu baldin badu...

✓ *Beste gol bat sartu du Bilboko taldeak! Athletic-en bigarre-
na, jaun-andreok! Etxeberria izan da golegilea! Nire ustez,
balere, beste gola (Athletic-en lehena) ikusgarriagoa izan da,
lagunok! A ze nolako zartakoa eman dion baloiari Iraola
erdilariak!* (*egokia*)



Nikolasek eta Katalinak... euren astoari arre!

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

ZAHARRA • BERRI IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



Ainitze Sala



“Osasuntsu egoteko baserriko produktu naturalak kontsumitzea bezalakorik ez dago”

Lazkaomendiko Iztueta elkartekoei Ordiziako tren geltokiaren ondoan behi-esne pasteurizatua saltzeko makina jarri zuten iazko irailean. Makinak izan duen arrakasta ikusita apirilean bigarren makin jarri dute Lazkaoko Jose Lasa kalean. Iztueta elkarteko kidea da Ainitze Sala, esnea ekoitzi eta banatzeko lanean Lazkaomendiko Iztueta Azpikoa baserrian ari den laugarren belaunaldikoa.

Zer du “makinako esneak” kaxakoak ez duena?

Esnea.

Behiak jeizteko makina, esnea saltzeko makina... Astoa eta marmitak ez al ziren naturalagoak?

Naturala? Behiak, belarra... azken finean esnea. Makinak? Asto lana murritzeko.

Baserriari eusteko lan asko egin behar da? Ala irudimena eta komertzial arloa landu behar dira?

Baserria eta lana biak bat dira, baina gaur egun irudimena eta komertzial arloa landu gabe ez dago etorkizunik.

Gazteak ba al du etorkizunik baserrian?

Beti egin izan den bezala gure produktuk bitartekorik gabe, zuzenean salduz gero ziur nago baietz.

Gaurko umeek ba al dakite esnea nondik datorren?

Bai noski, esne makinatik!

Juerga bukatzeko azken tragoa... esnea?

Eta hasteko zergatik ez?

Kolesterola modako gaitza den honetan, baserriko esnea ez omen da komeni.

Osasuntsu egoteko baserriko produktu naturalak kontsumitzea bezalakorik ez dago.

Eta helduok ere ez omen dugu esnekiak hartzeko beharrik.

Helduentzat onak diren osagaiak edukitzeaz gain, merezi duen bizio bat da.

Gosaltzeko esnea eta...

Ogi zopak.

Gustoko esne postre bat:

Puff... natilak, yogurta, arroz esnea...

Esnea beroa ala hotza?

Freskatzeko hotza eta epelean sartzeko beroa.

Azukrearekin ala gabe?

Nahiko gozoa banaiz eta nahiago gabe.

Zerk jartzen zaitu “mala letxean”?

Eroskira sartu eta esnea omen den “La Vaquera” litroa 0,45-ean ikustea.

Zerk alaitzen dizu eguna?

Bezera bat gerturatu eta geure esnearekin zein gustora dagoen esateak.

Amets bat:

Euskal Herri aske batean, baseritik duintasunez bizitzea.


ZUBARA
 Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
 Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
 ABALTZISKETA


SSANGYONG


LADA

ARANDIA
GARAJEA
 Autoen konponketa
 N-1, z/q Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47



Euskal Girotze Barnetegiek 25 urte bete dituzte, Segurakoak tartean

“Euskaraz hitz egiten ondo sentitu gara”

Railean 25 urte beteko dituzte Euskal Girotze Barnetegiek. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban 5 barnetegi daude eta horietako bat, Goierriin dago: Seguran. Haurrak euskaraz hitz egitera bultzatu nahi dituzte, euskararen aldeko kontzientzia positiboa barneratuz.

Zenbait haurrek eskolan euskaraz ikasi arren, eskolaz kanpo giro euskalduna ezagutzeko eta bizitzeko aukerarik ez dutela ikusita, Eusko Jaurlaritzako Hezkun-tza Sailak euskal Girotze Barnetegiak sortu zituen 1985. urtean. Alkizan, Barrian, Elgoibarren, Urduñan eta Seguran daude bost barnetegiak. Barnetegi horien helburu nagusia, “etxeko eta kaleko erdal giroan bizi diren haurrei euskal giro aberats bat ezagutzeko eta, are gehiago, euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea da, bizipen gogoangarri bat izateko aukera izan dezaten; honela ikasleen euskara ikasteko prozesuari eta hizkuntzarekin duten harreman afektiboari bultzada eragingarria eman diezaioiten”.

Ikasleen hizkuntzaren erabilera eta haren aldeko motibazioa indartzeko ekintzak eginez, batez ere, zera lortu nahi dute: “euskaraz lehen pausoak ematen ari diren ikasleei hizketan askatu ezin hori gaindiazte; euskaraz komunikatzeko gai direla kontuaraziz beren buruekiko



segurtasuna eta konfiantza sortzea, eta hitz-etorria indartzea”. Gauzak honela, ikasge-la bateko ikasle guztiek beren irakaslearekin, bost eguneko egonaldiak egiten dituzte barnetegietan.

Ondoko koadroan, barnetegian egon izan diren ikasleek barnetegiko egonaldiaz esandakoak eta sentitutakoak laburbiltzen dira.

“Euskaraz hitz egitea dibertigarria da”

1. Ez da aspertzeko astirik izan, ez nuen sinisten horren ondo pasako nuenik.
2. Euskaraz hitz egiten ondo sentitu gara.
3. Nigan konfiantza gehiago hartu dut, beldurra eta lotsa gabe hobeto egiten dira gauzak.
4. Denok berdinak gara, talde bat gara.
5. Etxean bezala egon gara.
6. Lagun hobeak egiteko balio izan digu.
7. Ezin da hitzez adierazi, bizi egin behar da.
8. Bost egunetan euskaraz bizitzeko gai naizela konturatu naiz.
9. Bi talde ginen, neskak eta mutilak, baina zuei esker orain hurbilago gaude.
10. Taldea hobeto doa orain, guztiok elkarrekin gehiago dibertitzen gara.
11. Euskal kanta asko gustatzen zaizkit.
12. Auzoan eta lagunekin ere euskaraz egin dezakegula konturatu naiz.
13. Talde lana, gogoia eta itxaropena jarrita gauza asko lor daitezke.
14. Euskaraz hitz egitea dibertigarria da.
15. Talde lana ona da, beldurra galdu behar dugu.
16. Lotsa kendu dut besteen aurrean hitz egiterakoan.
17. Ikusi dut ezinezkoa, jende askoren artean lorgarri bihurtzen dela.
18. Sentimentuak kontatu ditut, emozionatu naiz.
19. Ez zaituztet inoiz ahaztuko, eta aste honetan egin duguna ere ez.
20. Ikasleen arteko harremanak sendotu dira eta euskararen hazia barruan sentitu dute.
21. Atetik txiki sartu ginen eta handi ateratzen gara egonaldian barrukoa mugitu zaigu.
22. Egonaldia aberatsa, erakargarria, alaia, bizia eta positiboa izan da denontzat.
23. Eskolan gehiago kostatzen zaigu pertsonak ikustea, ikasleak ikusten ditugu.
24. Egonaldia errepikatu nahi nuke, gauza txar eta onekin.
25. Bizipen politak eta oroitzapen ederrak luzaroan iraungo dute.



Seguran 9.660 ikasle

Seguran 1996an ireki zuten Euskal Giroitze Barnetegia. Urte hauetan guztietan, 420 txandatan, 9.660 ikasle, 840 irakasle eta 11 monitore pasatu dira Seguratik.

Gainerako lau barnetegiak kontuan izanda berriz, guztira, ia 3.000 txanda antolatu dira, ia 6.000 irakaslek parte hartu dute, ia 70.000 ikaslek gozatu dute, eta 100 monitore dinamikan murgildu dira Euskal Giroitze Barnetegietan.

Alkizan festa

Irailean beteko dira 25 urte lehenengo barnetegia zabaldu zenetik Bizkaiko Euban. Geroztikako hogeita bost urteotako historian bizi izandakoa oroitzeko, sentitzeko eta ospatzeko, elkartzea erabaki dute Euskal Giroitze Barnetegiek. Ekainaren 12an, Alkizan egingo dute festa, goizeko 11etan hasita.



Gu iritsi ginenean, pastak egiten ari zen talde bat. Mozorrotu eta bideoa grabatzen beste talde bat. Pasta goxo-goxoak egin zituzten zornotzarrek. Gu izan ginen lekuko.

Segurako Euskal Giroitze Barnetegian, Txema Mujika eta Amaia Telleria beasaindarrak, Agustin Mujika zaldibiarra eta Josetxo Ugalde segurarra arduratzen dira, bost eguneko egonaldietan, haurrak euskararen munduan sartzen eta euskara sentitu eta erabili dezaten.

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailako ikasleak etortzen dira Segurara. Urtean 600 bat ikasle pasatzen dira barnetegi bakoitzetik. Datorren ikasturterako ere, aste guztiak hartuta dituzte. “Hona datozten askok, euskara bera, justu eskolako gauza bat bezala bizi dute. Eskolako atetik kanpo ateratzen direnean, euskara bukatzen da. Hemen aukera daukate, 5 egunetan, 24 orduz, euskaraz bizitzeko, modu ez formal batean”, dio Agustin Mujikak.

Dena den, Seguran, euskaraz hitz egitea bera helburu nagusia bada ere, bada beste helbururik. Azken urteotan, sentimentuek, emozioek, garrantzia handiagoa hartu dute Euskal Giroitze Barnetegietan. “Ikasleak eta

irakasleen arteko harremana sendotu nahi dugu. Baita umeen artekoa ere”.

Euskararen aldeko emozio positiboak txertatu nahi dituzte. Hori guztia lortzeko, Carl W. Buerchnerren esaldia da beraien lema nagusia: “Agian, esan duzuna ahaztuko dute baina inoiz ez dute ahaztuko nola sentiarazi zenituen”.

Derrigortzearekin emaitza onik ez

Txema Mujikak, Amaia Telleriak, Agustin Mujikak eta Josetxo Ugaldek urte asko

daramazkite lanean Euskal Giroitze Barnetegietan eta beraien esperientziaz baliatuz, duela lau urtetik hona, lanerako sistema edo metodologia aldatu dute. “Urteetan, haurren atzetik ibili gara, “egin euskaraz!” esan eta esan. “Badakizue Barnetegira” etorri zaretela eta hemen euskaraz egin behar dela... Ikusi dugu, horrek ez duela emaitza onik lortu. Ez da barnetegiko kontua bakarrik: eskolako kontua da, gizarteko kontua da. Derrigortze horrek ez du emaitza onik ematen. Erabilera handitzea lortzen

zen, baina oso modu behartuan. Errefortzua kentzen zenuenean, lehengora itzultzen zen”, dio Txema Mujikak.

Metodologia aldatzen ari dira beraz. “Aldaketaren etsairik handiena, derrigortasuna”. Hori horrela da, baina bizi-tzan ere horrela jokatzten dugu, baita helduok ere. Benetakoa izateko, barne-eboluzio batetik sortu behar da, bestela ez du balio. Guk oso baldintza onak ditugu horrelako gauzak probatzea. Laboratorio bat bezala gara”, gaineratu dute.

Filosofia aldaketa

“Beraz, aldaketa sakonagoa nahi baldin bada, ezinbestekoa da sentimentu kontzientek era plafinikatuan lantzea. Lehen jolasak ere lehiakorrak ziren, txapelketak... Guk geuk bultzatzen genuen lehia, pentsatzen genuelako umeak lehiaren bitartez motibatu egiten genituela. Zuk gehiago egin duzu euskaraz, eta puntu gehiago dituzu, zuk gutxiago... Hori zen pixka bat dinamika”, zehaztu du Mujikak.

Hortik abiatuta, hainbat lelo dituzte erreferentziazat.

“Urteetan, haurren atzetik ibili gara, “egin euskaraz!” esan eta esan. Ikusi dugu, horrek ez duela emaitza onik lortu. Ez da barnetegiko kontua bakarrik: eskolako kontua da, gizarteko kontua da. Derrigortze horrek ez du emaitza onik ematen”.

Pertsonan oinarritutako metodologia

Duela lau ikasturte hasi ziren Seguran filosofia edo metodologia berriaren lanean. “Elhuyarren eraldatze prozesuak ezagutu genituen, PNL Programazio Neurolinguisti-koa ere ezagutu genuen, eskola batzuetan egin ziren ikerketa batzuk eta gauza batzuk aldatzen hasi ginen. Probatzen hasi ginen. eta gure lana egiteko modua aldatzen hasi ginen. Eta pasatu ginen, erabilera erdian izatetik, erdian pertsona jartzera. Hizkuntzatik hiztunera pasatu ginen. Hizkuntza inporta zait-etik, zu inporta zaitzaizkit-era, ikasletik pertsonara... Haiek konturatzea, monitorei euskara inporta zaiela, baina euskara baino gehiago ni inporta natzaiera. Eskolan, galduta dago momentu honetan. Curriculumaren presiopean, pertsona, umea bera galdu egin da pixka bat eta gu horretan ari gara”, zehaztuko digute Segurako Euskal Girotze Barnetegiko begiraleek.

“Orain erdi-erdian pertsona dugu. Lehen ikutu nahi genuen haria, umea eta hizkuntza lotzen zituen haria zen, baina inguruan dauden beste zenbait hari ez badira ikutzen, ezin da mugitu, hari denak lotuta baitaude”, gaineratu dute.

Emozioak bizi euskaraz

“Ume askorekin hitz egiten duzu, ea zer sentitzen duten euskarari buruz, eta erantzunak betikoak dira: asko maite dut, Euskal Herriko hizkuntza da, ez dugu hiltzen utziko, Euskal Herrian euskaraz... baina pixka bat sakontzen duzunean, kontua izaten da: lotsa ematen dit, beldurra daukat trakets samar egiten dudalako eta halakok eta halakok parre egingo didatelako... horrelako gauzak ateratzen dira. Beraz, emozio horiek ikutzen ez badituzu, alper-alperrik da esatea euskaraz egin behar duzu nik esaten dudalako”, diote.

Emaitzarekin gustura daude. “Lehen lortzen zena berdin-berdin lortzen da. Erabilera aldetik, gaur egun, astelehenetik ostiralera egiten duten aldaketa berdin-berdin ematen da. Eta lortzen dira, lehen lortzen ez ziren beste hainbat gauza. Epe luzeagorako helburua dugu orain, eta ez da hain erraza neurtea”.



Segurako Euskal Girotze Barnetegian, Txema Mujika eta Amaia Telleria beasaindarrak, Agustin Mujika zaldibiarra eta Josetxo Ugalde segurarra arduratzen dira.

‘Betikoa egiten baduzu, betikoa lortuko duzu’ eta ‘Probatzen duenak badaki, probatzen duen ez daki’. Eta lelo horretatik, beste lelo honetara iritsi ziren: ‘Agian ahaztuko dute esan duzuna, baina ez dute inoiz ahaztuko nola sentiarazi zenituen’. “Momentu honetan, helburua hortxe dago. Sentimendu aldetik, egonaldi bizi bat eskaintzea, umeen eta euskararen arteko lotura afektiboa indartzea”, zehaztu du Amaia Telleriak.

‘Ezti-titarea’ erabiltzen dute. Alegia, “irakasle batek esan zigun, bere Burgosko aitonak esaten omen zuen, erdaraz: ‘se consigue más con un dedal de miel, que con barril de hiel’. Gu ezti-titarea-

rekin gabiltza umeak goxatzen”, diote.

Beldurra, konfiantza, lotsa.. sentimentuak lantzen dituzte jolasen bidez eta gero hizkuntzarekin lotzen dituzte. “Adibidez, jolas bat egiten dugu lotsa sentiarazten dutena, edo segurtasun eza sentitzen dutena, denen aurrean...

tontoarena egin behar den horietariko bat gero denen aurrean, zer sentitzen duten hitz egiten dugu. Gero, hizkuntzarekin lotzen dugu. Hizkuntzarekin ea inoiz gertatzen zaien horrelakorik... Askok, emozioei buruz euskaraz, lehenengo aldiz hitz egiten dute”, dio Mujikak.

Irakasleekin ere lan egiten dute Barnetegian. “Beste estrategia batzuk eskaintzen saiatzen gara, hemen ikusi duena edo hemen sumatu duena, eskolan edo ikastolan jarraitzeko. Irakaslea ere partaide egiten dugu. Ikusi, ikasi, sentitu... dezatela eurek ere”.

Euskaratik haratago

Euskal Girotze Barnetegietan darabilten metodologiak, “ez du euskararentzat bakarrik balio. Gaur egun barnetegia ez da euskara bultzatzeko barnetegi soil. Talde laneketak egiten dira. Harremanak hobetzeko... badira beste helburu batzuk. Goierriko taldeak etortzea ere nahi dugu”, azpimarratu du Agustin Mujikak.

“Momentu honetan, helburua hortxe dago. Sentimendu aldetik, egonaldi intentso bat eskaintzea, umeen eta euskararen arteko lotura afektiboa indartzea”.



Oroith abesbatza, 25. urteurreneko ospakizunetan

Duela 25 urte, Ordizia Santa Ana abesbatzan zebilen gazte talde batek, Oroith abesbatza sortu zuen. Egunotan ospakizunetan murgilduta dabilta, oraingo eta lehengo Oroith kideak. Maitzaren 22an, kontzertu berezia eskainiko dute Ordiziako elizan. Kepa Mujika eta Julen Telleria taldekideek egin digute Oroithen ibilbidearen errepasoa.

1985. urtean, 13 bat lagunekin hasi zen Oroith abesbatza. Santa Ana abesbatzatik bereizi zen taldetik sortu zen Oroith. “Musika eskolako 3 irakasle, Amalia Ibáñez, Garbiñe Balerdi eta Ana Margareto ziren tartean. Irakasle hauetako bakoitza arlo desberdin batetaz arduratzen zen, baina gutxira Garbiñe ipiniko zen zuzendari bezala”, gogoratu du Kepa Mujikak.

Helduen abesbatzaz gain, hasiera-hasieratik, musika eskolaren inguruan zebiltzan haurrak elkartzuz Oroith txiki abesbatza ere sortu zuten. Amalia Ibáñezek hartu zuen gaztetxoenen zuzendaritzako ardura.

1987

Lan kontuak tarteko, Garbiñe Balerdiren lekua, Amalia Ibáñezek hartu zuen, helduen taldearen zuzendaritza hartuz. “Honen freskotasun eta izakerak garrantzitsuena irakatsi zigun: abesbatz musikarekiko zaletasuna. Garai haietan abesbatza kontzertu mugimendu dexente zegoen, eta bi taldeek momentu hura aprobetxatzen genuen. Gipuzkoan, Euskal Herrian, Espainian eta atzerrian ere abestu genuen”, zehaztu du Mujikak.

Musika zaletasunak elkaritu ditu Oroitheko kideak. Telleriaren esanetan, “lana, lagun giroa, bidaiak, eta musika izan dira elkartaren ardatz nagusiak”.

1994

1994an, Amalia Ibañezek zuzendaritza utzi eta soprano bezala abesten jarraitu zuen. Gorka Aierbe izango zen zuzendari berria. "Lehenagotik ere taldea zuzendu zuena proiekturen batean. Honekin ere taldea aritu zen, lehiaketa nazional eta nazioartekoetan, baita musika zikloetan ere", gogoratu dute Mujikak eta Telleriak.

2000

Sei urtera, 2000. urtean, Katrin Iturraldek hartu zuen abesbatzaren zuzendaritza eta oraindik ere bera da egungo zuzendaria. "Oroith txikiko abeslari izandakoa hasieratik, geroago txikitxoenen zuzendari izandakoa. Katrinekin Espaini mailan ospatzen den 2008ko Sari Nagusia lortu genuen, eta hemendik aurrera berriro ere atzerrira saltoa egin genuen. 1992an ezagutu genuen Austriaco Spittal an der Drau hirian ospatzen den lehiaketara itzuli ginen 2008an, hirugarren sari bikain bat ekarriz".



Aurten Oroith abesbatzako kideek irteera egin dute Parisera, 25. urteurrena ospatzeko aitzakiarekin.

280

25 urteotan, adin ezberdinetako 280 bat abeslari izan dira Oroith-en partaide. Momentu honetan, adibidez, helduen abesbatzan, 22 lagun ari dira, 15 eta 46 urtekoak. Ordiziarrez gain, inguruko herrietako kideak ere badaude gainera.

Harrobi lana ondo sakondu izan dute beti Oroithekoek. Gaur egun zuzendaria,

Katrin Iturralde da horren adibiderik garbiena. Garai batean gainera, txikitxoek Oroith ere egon zen, 7 eta 11 urteko gaztetxoena.

"Momentu ezberdinetan, emakumezkoek soilik osatutako taldea ere egon izan da, gauza zehatzen bat egiteko. Oroith Txikiko neskek eta Oroitheko eta emakumezkoek osatua", gogoratu du Kepa Mujikak.


Musika

Musika esitiloari dagokionean, denetariko musika lantzen dute Oroith-en. Estilo nagusia, polifonia da. Baina denetik. Aintzinako musika, berpizkundekoa, barrokoa, erromantikoa, garaikidea, atzerriko folklorea eta nola ez, euskal folklorea", dio Telleriak.

"Musika ikuspegi berri bat ematen saiatzen gara, obrak sakonki aztertuz; konposat-

tzaile garaikideen obrei ere ardura berezia emanez. Musika kritikari eta jakitun gehienek hitzetan, abesten ditugun obrei emandako adierazkortasuna da berezitasunik garrantzitsuenak, XX. mendeko eta euskal folkloreak emandakoa bereziki", gaineratu du Mujikak.

Euskal Telebistako 'Oh Happy day' saioaz galdetu diegu Oroithekoiei. "Gonbitea



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

TOLARE

URBITARTE

Sagardotegi edo erretegi menua aukeran

Sagardo botilak salgai

SAGARDOTEGIA

943 1801 19 ATAUN



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Tolosako lehiaketa prestatzen

*Abots berdinen
Oroith abesbatza
1994an Tolosako
lehiaketan*



Abesbatzak betidanik egiten duen lanaz gain, formula berriak probatzen ari da Oroith. Azkenaldi honetan Oroith Abesbatzak kontzertu eta ziklo ugariatan parte hartu du, hala nola, Polanco-ko musika zikloan, baita Loinatz Abesbatzarekin batera egindako Brahms-en Valses Amatorios eta Rossini-ren Misa Solemneko zatiak, eta Tolosako Hodeiertz Abesbatzarekin batera egindako Monteverdiren “Visperas de Navidad” bereziki aipatuz, azken hauekin 2006an Barroko Airen eta 2007an Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu dute.

2009an tolosarrekin batera J.G.Rheinbergerren Cantus Missae eta Steve Dobrogoszen Mass abestu ditu Tolosan eta Ordizian, kontzertu arrakastatsuak izanik. Donostian egindako Handel-en Mesias ospetsuan ere parte hartu du 2007, 2008 eta 2009 urteetan.

Tolosako Hodeiertz abesbatzarekin proiektu ezberdinetan

parte hartzen ari da Oroith. Azarorako, erronka berria daukate: Tolosako abesbatza lehiaketan parte hartzea. Elkarrekin taldea osatu eta lehiatuko dira. Ez dute lehenengo aldia Tolosan parte hartzen dutena: 1991n helduen taldearekin lehiatu ziren. 3. saria eskuratu zuten. 1994. urtean emakumeen taldea ere izan zen eta Oroith txikikoak ere izan dira behin baino gehiagotan.

Elkarlana

Gustura daude elkarlanarekin: “berez gure taldearen neurriagatik joango ez ginen lehiaketa bat da Tolosakoa. 22 lagunekin nahiko eskas geldituko ginateke. Beraiek ere, gutxi edo gehiago arazo bera daukate. Esperientzia izan dugu orain arte elkarrekin aritutakoan. Egiten dugun lana antzekoa da. Eskaintza hori sortu zen, Tolosakoek gonbidatu gintuzten eta guretzat aukera ona da”.

jaso dugu, baina ez da gure estiloa. Koreografia ez da gurea. Beste kontzeptu bat da. Lan asko eskatzen du gainera”.

Telebistako esperientzia ez baina estudioko esperientzia probatu dute aurten Oroith-ekoek. Pello Ramirez musikari ordiziarrak atera duen ‘Eskuz lurrari’ disko berrian parte hartu dute. “Abesbatza-rentzat esperientzia ezin hobea izan da”.

Oroith

Euskal kantugintzatik ateratako izena du Ordiziako abesbatzak. “Iparraldeko Lesberdosen Ama abestia izan zen abestu zuten lehenengotako abestia, eta honek emango zion izena abesbatzari, Oroith hitza abestiaren testuan azaltzen baitzen”, gogoratu dute.

Ospakizunak

Taldeari izena ematen dion abesti hori ere abestuko dute 25. urteurrena ospatzeko kontzertu berezian. Maiatzaren 22an izango da, iluntzeko 8,15etan, Ordiziako elizan. “Urte hauetan guztietan taldean kantatu izan dutenak gonbidatu eta elkarrekin abestuko dugu guztiek. 55-60 pertsona inguru elkartuko gara”, diote Mujikak eta Telleriak.

Abesbatzaren zuzendariak izango lau zuzendarietatik hiruk, txandaka zuzenduko dute taldea.

Aldi berean, taldekideak izan diren Pello Ramirez cello joleak eta Ainhoa Garmendia sopranoak, Itziar Barredo piano jolearekin batera, saio berezia eskainiko dute.

Elkartzeko aukera polita, eta horrelakoetan, bazkaria edo afaria izaten da oroitzapenak gogoratzeko aukerarik onena. Beraz, kontzertuaren ondoren, afaria egingo du Oroithekoek.

Oroitzapenekin jarraituz, aste guztian zehar, eta maiatzaren 23ra arte, D’elikatuzen, erakusketa dago ikusgai. Oroith abesbatzen historia laburbiltzen da bertan, argazki, grabazio eta jantzieta.

Aurraxeago ere badituzte beste proiektu. Batetik, ekainaren 12an, Suanceseko gizon-zekoan abesbatza etorriko da Ordiziara. “Elkartrukea da. Cantrabrian izan ginen 2007an eta orain beraiek bueltan datoz”. Tolosako Hodeiertzek eta Oroith-ek elkarrekin abestuko dute kontzertu berean.

Bestetik, abuztuan, azkeneko astean, Cerdenyara joango dira.

**Musika ikuspegi berri bat ematen
saiatzen gara, obrak sakonki
aztertuz; konposatzaile
garaikideen obrei ere ardura
berezia emanez.**



Oroith abesbatzako partaideak 1987. urtean.



Goiko argazkian Oroith Txiki abesbatzako partaideak 1989. urtean ETBko lehiaketan. Bebeko argazkian gaur egungoak.

Sari ugari

- ✓ 1987, Aviles (Asturias): 2. saria.
- ✓ 1989, ETB ahots nahasietako abesbatza saria.
- ✓ 1990, Ejea de los Caballeros (Zaragoza): 2. saria.
- ✓ 1991, Tolosako Nazioarteko Abesbatz Lehiaketa: 3. saria.
- ✓ 1994, Debrecengo Nazioarteko Abesbatz Lehiaketa, Hungria: 2. saria ahots nahasietan, 3. saria ahots berdinetan, derrigorrezkoa den obraren interpretazio hoberenari saria eta aipamen berezia folkloreko egitarauari.
- ✓ 1995, Ejea de los Caballeros (Zaragoza): 1. saria eta ikusentzulegoaren saria.
- ✓ 1998, Cieza (Murcia): 2. saria.
- ✓ 1999, Benasque (Huesca): 2. saria.
- ✓ 2001, Aviles (Asturias): 1. saria.
- ✓ 2003, Villa de Aviles-ko 20. Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa: 1. saria. Azken 19 urteetan 1. sariak lortu dituztenen arteko lehiaketa txapelaren artean txapeldun.
- ✓ 2005, San Vicente de la Barquera: 1. saria eta derrigorrezkoa den obraren interpretazio hoberenari saria.
- ✓ 2006, 8. Abesbatzen Sari Nagusi Nazionala, Ejea de los Caballeros: 2. saria bi sailetan.
- ✓ 2007, 9. Abesbatzen Sari Nagusi Nazionala, Griñon: 1. saria bi sailetan eta sari nagusia.
- ✓ 2008, Spittal an der Drauk (Austria) 45. International Choir Competition lehiaketan 3. saria polifonia sailean.



- Aroztegia
- Altzariak neurrira
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobek"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



“Badator!”

Ekainaren erditik aurrera, material organikoa biltzeko edukiontzi berria jartzen hasiko da Sasieta Mankomunitatea

Lazkao, Itsasondo, Arama, Ormaiztegi, Idiazabal, Olaberri eta Beasaindik hasita, Sasieta Mankomunitatea edukiontzi berria jartzen hasiko da Goierriko herrietan. Etxean sortzen dugun material organikoa biltzeko izango da. Dena den, edukiontzi berezia izango da: giltza beharko da bertara zaborra botatzeko. Enrike Enparantza, Sasietako teknikariak eman dizkigu azalpen guztiak.

'Banator' lelopean, kanpaina hasiko du egunotan Sasieta Mankomunitateak. Edukiontzi berria datorrela iragarriko digute goierritarroi. Berezia izango da edukiontzi berria, eta horregatik, girotze kanpainaren berezia egingo dute Sasietaoek.

Enrike Enparantza, Sasietao teknikiariak esan digunez, papera, beira, ontziak, pilak, olio eta arropak birziklatzen dituenak, eta orain, material organikoak birziklatzen duenak, zaborraren % 80 birziklatuko du. "Oso bilketa garrantzitsua da eta ondo ateratzeko, jendearen parte hartze ezinbestekoa da.", dio Enparantzak.

Etxean sortzen dugun material organikoa biltzeko edukiontziak da. Zer bota liteke bertara? Patata azalak, frutu azalak eta hondarrak, barazkien sobrak, arrautza azalak, fruitu lehorren azalak, ogia, lorontzietako loreen zatiak, belarra, kimaketak... Ontziak biltzeko edukiontzi horia dagoen leku guztietan jarriko dute edukiontzi berria.

Sistema berezia

Kolorez, marroi-grisa izango da edukiontziak. Dena den, izango du berezitasunik: giltza berezi bat beharko da edukiontzi irekitzeko. Enparantzak adierazi digu giltzaren zergatia. "Beste bilketetan ez bezala, honetan oso inportantea da barrura botatzen den materiala kutsatuta ez egotea. Adibidez, beirarenean, kortxoak edo tapa botatzen baduzu, ez da ezer gertatzen, birziklatzeko

garaian kendu egiten baitira. Paperarekin antzeko zerbait gertatzen da. Jendeak koadernoak botatzen du espiralarekin, baina hori kendu egiten da. Baina konposta egiteko garaian, botila botatzen badu, kristala puskatzen bada, kristal hori kentzea oso zaila. Plastikorekin edo metalarekin berdin. Guk kalean material organikoaren edukiontziak jartzen badugu, eta herritar bat baldin badator, edukiontzi hori zertarako den ez dakie-

ko da. Tapa ondo itxi gabe ez da giltzarik atera ahal izango".

Giltza eskatzeko bideak

Material organikoa birziklatu nahi duenak, beraz, giltza eskuratu beharko du. Bide ezberdinak erabiliko ditu Sasietao giltza jaso nahi duenaren datuak jasotzeko. Batetik, telefonoz dei daiteke Sasietao; bestetik, web orri bitartez ere egin daiteke eskatera; hirugarren bidea, atarrietan jarriko den paperean

da, baina iragazkaitza edo transpirablea. Barruko lurrina transpiratu egiten da, barruko usteldu gabe eta usainik ere ez du aterako".

Kalitatezko konposta

Material organikoa, Azpeitiko konpostaje plantara eraman-go dute. Bertan konposta egin eta berriz ere Goierriara itzuliko da, Goierriko lorategietan konposta egiteko hitzarmena sinatu baita.

Dena den, lorategietan erabili ahal izateko kalitatezko konposta beharrezkoa da. Horregatik, momentuan behintzat, material organiko begetala bakarrik bilduko dute. Alegia, ez dute ez arrainik, ez haragirik bilduko. "Orain arteko esperientzia pilotuan ikusi da, haragi eta arrainarekin egindako konpostak gatz gehiegi duela eta lorazaintzarako ez dela erabilgarria. Beraz, lorategietan erabiltzeko konpostak, oso maila altukoa izan behar du. Haragi eta arrainik ez dugu eskatuko, hala ere, kopuru aldetik, oso gutxi da".

Goierriko hainbat etxetan konposta egiten da, baratzen edo lorategian jarritako konpostatzailearekin. Arlo hau bultzatzen ere jarraitzeko asmoa dutela dio Enparantzak.

Material organikoa

Etxean sortzen dugun zaborrari papera, ontziak, beira, pila, olio eta arropa kendu eta gelditzen den zaborraren herena, material organiko begetala da. "Orain arte, bes-

**Zer bota liteke bertara?
Patata azalak, frutu azalak
eta hondarrak, barazkien
sobrak, arrautza azalak,
fruitu lehorren azalak,
ogia, lorontzietako loreen
zatiak, belarra, kimaketak...**

na, beti dagoelako horrelako norbait, eta zabor poltsa normala botatzen badu, zakar horrek denak ez du balio izango konposta egiteko. Hori ez gertatzeko, giltza berezi bat jarriko diogu edukiontzia. Material hori kutsatu gabe egongo dela bermatzeko, giltza bat jarriko zaio. Beraz, material organikoa birziklatu nahi duenari. Giltzarekin tapa ireki, zaborra bota, tapa itxi, eta giltza atera-

izena ematea da. Behin izena emanda, etxean jasoko dute herritarrek giltza. Herri txikienetan, etxez etxe joango dira aukera berria azaldu eta giltza ematera.

Giltzarekin batera, foiletoa, zabor kubotxo bat eta urtebeterako adina poltsa jasoko dituzte herritarrek. "Kubotxoa berezia da, zirriztuak baititu. Poltsak ere birziklagarriak dira. Goretexa bezalakoa da: impermeablea



R.P.S. Nº 45-56/10.

"Entzumen kalitatea bizi kalitatea dakar"

Entzumen Kalitatea Hobetzeko Plana jarri du martxan **GAESek**. Plan honi esker honako abantailak izango dituzu:

- 1 Entzumenari buruzko aholkularitza DOAN**
- 2 Ordainketa erraztasunak entzumen-laguntzetarako**
- 3 Opari bat, etortze hutsagatik**

GAES
Entzumen Zentroak

J.M. Barandiaran Enp. / ORDIZIA
Tel.: 943 88 99 88

Nafarroa Etorb., 13 / BEASAIN
Tel.: 943 80 55 89

EKIP
Entzumen Kalitatea Hobetzeko Plana



Papera, beira,
ontziak, pilak,
olioa eta
arropak
birziklatzen
dituenak, eta
orain, material
organikoa
birziklatzen
duenak,
zaborraren
% 80
birziklatuko du.

*Giltzarekin batera, foiletoa,
zabor kubotxo bat eta
urtebeterako adina poltsak
jasoko dituzte herritarrek.*



teak birziklatzen ziren baina organikoa utzita zegoen, ez zegoelako hori birziklatzeko aukerarik. Duela urte batzuk, Italiara joan ginen eta ikusi genuen bilketa hori egiten zela eta organikoa birziklatzen zela. Esperientzia hura hona ekartzen saiatu ginen baina arazo batzuk medio, ez zen aurrera egin”, dio Enparantzak.

Orain Gipuzkoako zenbait herritan, Donostian, Zarautzen, Azpeitin eta Azkotian adibidez, proba egin da material organikoaren bilketa honekin, eta emaitzak onak izan direla esan digu Sasietakoak. “Azpeitin, konposta egiteko planta ireki zenean, iazko, Gipuzkoako herri batzuetan, esperientzia pilotua egin zen. Dena den, esperientzia pilotu oso mugatua izan da. Partaidetza nahi-

ko txikia izan da, herritar batzuk bakarrik aukeratu dira, baina emaitza batzuk atera dira. Guk, Goierri osora zabalduko dugu”.

Ekonomikoki merkegoa

Enrike Enparantzak goierritar guztiak animatu nahi ditu etxean giltza jaso, material organikoa bereiztu eta edukiontzi egokira botatzera. Ingurumenaren alde norberak bere aletxoa jartzeaz gain, ekonomikoki ere onurak izango direla adierazi digu Enrike Enparantzak. “Ekonomikoki merkegoa da birziklatzea, zabortegira eramatea baino. Beraz, zenbat eta gehiago birziklatu, orduan eta gutxiago gastatuko dugu”. Aurrera begira, aztertzen ari dira, birziklatzen dutenek zergetan onuraren bat izango ote duten.

Atez atekoa aztertzen

Gipuzkoako herri batzuetan, Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen adibidez, atez ateko zabor bilketa egiten hasi dira, material organikoa biltzeko edukiontzia jarri beharrean. Sasieta Mankomunitateko ordezkariak, Usurbilen izan dira gaia gertutik ezagutzeko. “Atez atekoa ez da berria, Italian eta beste leku batzuetan egiten zuten aurretik. Atez ateko sistema ere ona da. Hasieran, herritarrentzako gogorragoa da. Klean ez da edukiontzirik eta egun bakoitzean, zabor mota bat atera behar dute. Organikoa, ontziak, papera... Egunero gogoratu behar du herritarrek zer tokatzen den. Ordutegi bat ere badago zaborra ateratzeko... Guk jarri behar dugun sistemarekin, gure ohiturak ez

dira hainbeste aldatzen. Baina bien emaitzak onak dira. Sistema batekin zein bestearekin, emaitza onak lortzen dira. Bi sistematan, kanpaina onak eta luzeak egin behar dira. Lan asko daukate atzetik. Gurea, sistema boluntarioa da, giltza hartu ala ez erabaki dezake. Atez atekoa, derrigorrezkoa da, ez baitago edukiontzirik, beraz, derrigorrean parte hartu beharrean zaude. Gaizki ateratzen baduzu, ez dizute zaborrik bilduko”.

Goierriin ere, herriren batzuk eskatu omen dute atez ateko zabor bilketa sistema aztertzeko. “Hemen erabaki da hasiera batean, sistema suabeagoa sartzea, baina aztertzen jarraitzen dugu eta ikusiko dugu etorkizunean zein sistema hartzen dugun”, gaineratu du Enparantzak.



kutxa



Egunsenti berria

Mushu Pakari elkarteak sortu dute
Goierriko ekuatoriarrek

Ekuadortarrak, Goierriin 160tik gora dira. Hauetako batzuk elkarlanean hasi dira eta Mushu Pakari elkarteak sortu dute. Dagoeneko bi jai antolatu dituzte Beasainen Ekuadorko etorkinak elkartu ahal izateko. Angel Sánchez da elkarteko lehendakaria. Goierriin 10 urte daramatza eta gaur egun Itsasondon bizi da bere familiarekin.



Amaren eguna ospatuz

Beasaingo Dolarea atzealdeko parkea da ekuadortarren bilgunea. Asteburuero bertan biltzeaz gain, dagoeneko bi ekitaldi nagusi egin dituzte ekuadotarrek. Batetik, abenduaren 31n urte bukaerako festa egin zuten; eta bestetik, maiatzaren 8an, Ekuadorren maiatzeko bigarren igandean ospatzen den Amaren Egunean jaia egin zuten. Bertan futbol txapelketako finala jokatu zuten. Ekuadorko dantza talde baten emanldia izan zen. Eta 'hornado'-a egin zuten bertaratu ziren guztientzat. Ekukadorreko ohiko jaki hau labean egindako txerriki txikitua da, artoarekin (mote) eta patatekin. 400 bat plater egin zituzten eta dohainik banatu zituzten. "Nahiz eta bukaeran larri ibili ginen, jendea gustura gelditu zen".

Mushu Pakari. Egunsenti berria esan nahi du, Quechua hizkuntzan. Ekuadortarren jatorrizko hizkuntza da, baina galtzeaz dago. "Oso jende gutxi hitz egiten du. Batez ere, zaharrenek. Gure komunitatean, leku batzuetan ez da batere hitz egiten".

Euskararekin alderatuta, Quechua hizkuntza egoera okerragoan dagoela esan digu. "Utzita dago. Gehiengoak gaztelera hitz egiten du. Orain, presidente berriak, eskoletan ikasgai bat gehiago bezala jarri du gatzetxoek ikasteko. Berreskuratu egin nahi da, gurea da eta. Ez da komeni ahaztea. Gu ere gurearen alde ari gara borrokan, zuek euskararekin bezala".

Goierrin bizi diren gehienek ez dakite Quechua hizkuntzarik, baina izena Quechueraz jarri diote, "jendeak galdetu dezan, eta gehiago interesatu daitezen, gu zer garen eta zer eskaini eta zer jaso nahi dugun".

Zer eskaini eta jaso nahi duzue?

Eskaini, jendeak, gure kultura ezagutu dezala. Jendeak ulertu dezala, guk benetan zer utzi dugun. Ez dugu ahaztu nahi, utzi duguna. Mantentzen jarraitu nahi dugu, baina hemengoarekin konpartituz. Ekuadortarra ez denak, gure kultura, gure gastronomia ezagutzea nahi dugu. Ordainetan, erakundeen laguntza eskatzen dugu, gurea dena erakutsi dezagun. Aldi berean, urtean zehar egiten diren programa edo ekitaldi ezberdinetan sartu nahi dugu. Hori da gure asmoa, eta horregatik sortu da elkarteak.

Amaren eguna ospatu berri duzue.

Ekuadorren maiatzeko bigarren igandean ospatzen da Amaren

eguna. Hemen ospatzen denaren antzera ospatzen dugu, baina guk sakonago bizi dugu. Erlijiosoagoa da guretzat egun hori. Aitaren eguna, hildakoen eguna... guretzat egun garrantzitsuak dira, erlijiosoagoak garelako.

Zein egun ospatzeko asmoa daukazue?

Hasiberriak gara eta poliki-poliki hasi nahi dugu. Aurten, hiru ekitaldi egitea pentsatu dugu: egin dugun Amaren Eguna; abuztuaren 14an, Ekuadorren indepentziaren eguna; eta urriaren bukaeran, hildakoen eguna ospatzeko pentsatzen ari gara. Hori bai, Urte Zaharra ere ospatuko dugu, hori beharrezkoa da. Orain arte, ez garenez elkartu, Urte Zaharra bakoitzak bere etxean pasatzen zuen. Ez ginen lagunekin elkartzen. Orain honekin hasi gara eta aukera daukagu elkarrekin ospatzeko.

Beasainen Dolarea atzealdeko parkean, boleibol zelaia jartzen duzue asteburuero. Kirola egiteko ere elkartzen zarete beraz.

Gure Ecuador txikia da. Ekuadortarren kirola da boleibola. Larruzko baloiarekin jokatzen dugu, hiruko taldeetan. Boleibol leku askotan jokatzen da baina gurea berezia da: larruzko baloiarekin jokatzen da eta horrela ez da beste inon jokatzen.

Areto futboleko txapelketa ere jokatu dugu, emakumezkoek nahiz gizonezkoek.

Finala, maiatzaren 8an jokatu genuen. Gizonekoen 8 talde eta emakumezkoen 4 talde. Gipuzkoa osoko jendea etortzen da Beasaina. Donostia, Hernani eta Ikaztegiako taldeak ere izan ziren. Beti saiatzen gara propaganda jartzen Donostia aldean.

Ez dugu ahaztu nahi,
utzi duguna. Mantentzen
jarraitu nahi dugu,
baina hemengoarekin
konpartituz.

Abuztuaren 14ko festaren atariko, beste txapelketa bat jokatu-kodu. Belar artifizialeko futbol zelaian jokatzeko aukera izatea espero dugu ordurako.

Zer moduz bizi zarete

Goierriin?

Ni, pertsonalki, oso gustura nago. Oso eskertuta nago, iritsi nintzen lehenengo egunetik ez baitut inoiz arazorik izan. Alderantziz, jendea beti laguntzeko izan da. Ekuardotik zuzenean Beasaina etorri nintzen. Ormaiztegin ere bizi izan naiz. Orain, Itsasondon bizi naiz. Oso ondo.

6 urteko alaba dut, hemen jaioa da eta Itsasondoko ikastolan dabil eta euskara ikasi du dagoe-neko. Gu hemen gaude.

Baina faltan botako da.

Hori bai, hori beti. Ni iaz 3 hila-beteen egon nintzen Ekuadorren eta aurten ere joango naiz. Baina joan gabe gelditzen naizenetan, gogorra egiten da. Ondo gaude hemen, baina zureekin egotea behar duzu. Momentuan hau da daukaguna.



Angel Sánchez da Musbu Pakari elkarteko lehendakaria.



Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 27 euro

HITZA ☐
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:		• N A :	
• Lanbidea:		• Jaioteguna:	
• Helbidea:		• Herria:	
• P.K:		• Tel.:	
• Posta elektronikoa:			
• Kontu zenbakia:			

Beasain

Loinatz jaiei azkeneko txanpa

Maiatzak 9, igandea:

17:30etan: Txindata musika eskolako hurrek eskainitako musika emanaldia, Saloian.

Maiatzak 21, ostirala:

19:00etan: Iruñeko Alde Zaharreko erraldoi eta kilikien irteera, Loinazko San Martin plazan.

21:00etan: Urrezko Beasaingo Barea eta 'Beasain jaietan' urtekariako partaideen eta laguntzaileen afaria, Beti-Bizi elkartearen.

23:00etan: Dantzaki dantza-eskolako irakasleen eta ikasleen dantza erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

23:00etan: Kontzertuak: Los Sfinsters, The Taikonauts, Devon eta Colapso, txosna gunean. Antolatzailea: Txosna batzordea.

23:30etan: Kontzertua: Desordutan eta Zea Mays, Bideluze plazan.

Maiatzak 22, larunbata: Mozorroen eguna:

10:00etan: Kalejira Udal Txistulari bandarekin.

10:00etan: Elkarteen arteko Sukaldaritza-lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

11:00etan: Erretiratuentzako Toka-txapelketa eta Igel-txapelketa, Zaldizurreta kaleko terrazan.

13:00etan: Elkarteen arteko Sukaldaritza-lehiaketan prestatutako jakien aurkezpena, Loinazko San Martin plazan.

16:00etan: LX. Loinatz txirrindulari-proba amateurrentzat (Sub-23), Nafarroa etorbidean.

16:00etan: Gazteen arteko Xake-txapelketa. Murumendi ikastetxean.

18:45etan: Txirrindularien helmugaratzea, Nafarroa etorbidean.

18:30etan: Gaur Jaia taldearekin Umeentzako Dantzaldia, Loinazko San Martin plaza.

23:00etan: Dantzaldia Beste Bat taldearekin, Bideluze plazan.

23:00etan: Gaztetxe eguna dela eta, DJ Txo txosna gunean. Antolatzailea: Txosna batzordea.



Maiatzak 23, igandea:

09:00etan: Iturengo Aurtizko zanpantzarren esna-deia.

11:30etan: Beasaingo X. Dantza Topaketa: dantzarien ibilaldia auzoetatik abiatuta.

12:30etan: Beasaingo X. Dantza Topaketa: Taldeen bilkura Gernika pasealekuan eta ondoren ibilaldi nagusia.

17:45etan: Erakusleihen lehiaketako sari-banaketa, Bideluze plazan.

18:00etan: Dantzaoketa eta play-backa, Loinazko San Martin plazan.

18:00etan: Beasaingo X. Dantza Topaketa: euskal dantza-taldeen dantza-saioa Arrabots taldearekin, Bideluze plazan.

19:00etan: Herri-kirol jaialdia, Gernika pasealekuan.

Aizkolariak: Nazabal eta Azurmendi, Larretxea eta Olasagastiren aurka.

Aizkolari gazteak: Jauregi eta Larretxea, Dorronsoro eta Erasunen aurka.

Harrijasotzaileak: Aimar Irigoien eta Izeta II.

Ikaskide

akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbialde plaza 7- 943 027 792

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierrko Unibertsitatea

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurmena, kalkulua, ikasketa teknikak

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Ordizia

Ekobizi azoka

Ekobizi azoka egingo da aurreneko aldiz Ordizian maiatzaren 21tik 23ra, Beti-Alai pilotalekuan. Eraikuntza bioklimatikoa eta egurrezko eraikuntza, energia eraginkortasuna eta berriztagarriak, mugikortasun iraunkorra, garbiketa eta kosmetika naturala, birziklaia, konposta eta bidezko merkatararitzaren postuak egongo dira. Ordutegia: maiatzaren 21ean, 17:00etatik 20:30era; maiatzaren 22an, 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era, eta maiatzaren 23an, 10:30etik 14:00etara.

Lazkao

'Pantzika, Txinparta ederra'

Maiatzaren 28an, arratsaldeko 5,30etan, Azeria kultur gunean, 'Pantzika, Txinparta Ederra' ikuskizuna eskainiko dute. Saioa dohainik izango da.

Zarzuela

Maiatzaren 29an, gaueko 9,30etan, Kantaka eta Xanbe abesbatzek Zarzuela Gaua eskainiko dute Azeria kultur gunean. Sarrerak Udaletxean daude salgai, 5 eurotan.

Beasain

Astigarretan Pazko jaia

Maiatzak 23, igandea:

11:30ean: Meza Nagusia, Beasaingo San Martin Parrokiako koruak abestuta.

Ondoren: Laja eta Landakanda trikitilariak eta Zeberio, Goikoetxea eta Mañukorta bertsolariek saioa eskainiko dute giro alaitzeko.

13:30ean: Herri bazkaria, Astauzel Astigarretako Elkartean

Bazkalondoren: Trikitixa eta bertso saioa.

Beasain

V. Tomas Salazar Aizkorriko Bira, ekainaren 13an

Beasaingo Aizkorri Mendizale Elkartek bi urtean behin antolatzen duen Tomas Salazar Aizkorriko Bira, ekainaren 13an jokatu da, goizeko 6etan abiatuta. Bertan parte hartu nahi duenak, izena emateko epea irekita dauka. Bi bide daude izena emateko: aizkorri@aizkorrimo.org posta elektronikoa eta www.aizkorrimo.org web orria.

Ekainaren 10a baino lehenago izena ematen duenak, 12 euro ordaindu beharko ditu Euskadiko Kutzako 3035.0017.19.017007351.4 kontu zenbakian. Egunean bertan izena ematen duenak, 15 euro ordaindu beharko ditu.

Beasain-Aizkorri-Beasain ibilbidea egiteko 12-14 ordu izango dituzte kirolariak.



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTIZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Goierri

Goierriko III. Kultur zirkuitua

Maiatzak 20, osteguna:

Seguran:

19:00etan: Kultur Etxean, Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolarien 'Mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak'.
"Kantatzeko ez ezik, historia kontatzeko ere balio dute bertsoek. XX. mendeko giro politiko eta soziala deskribatzen duten aleak aukeratu dituzte Xabier Amuriza eta Jon Maiak ekitaldi honetarako".

Maiatzak 21, ostirala:

Itsasondon:

17:00etan: 'Erreka Mari' txotxongilo emanaldia, Ikastolan.
"Ba ote liteke Euskal Herrian oraindik laminak bizi izatea? Hainbeste zikinkeria, inbidia eta marmarrekin izkutatzuz joan ziren. Bat gelditzen zaigu eta bere istorioa kontatzeko dizuegu".
22:00etan: 'Gezurrezko printzea', Ikastolan.
"Senarraren bizitzan erabat murgilduta dagoen emakume baten bizitza kontatzen du. Erabat etsita, harremana haustea erabakiko du. Senarraren ondoan bizitako une goxoak kontatzen dizkigu, baita banandu egoerak nolako menpekotasuna sortzen duen ere".

Maiatzak 26, asteazkena:

Beasainen:

19:00etan: Saharako maratoiari buruzko ikusentzunezkoa, Udaletxeko Batzar aretoan.
"Sahara Marathoia urtero Aljeriako Tindouf herrian dauden Saharaui Errefuxiatu kanpamentuetan ospatzen den lasterketa solidarioa da. 2009an lasterketan parte hartzaile euskaldun batzuen eskutatik sortutako diaporama da".

Idiazabal

Maiatzaren 30ean, San Adrian eguna

Maiatzaren 30ean ospatuko da San Adrian eguna. Hona hemen egitaraua:

07:00etan: Otzaurterako autobusa Mujika jatetxearen aurretik abiatuko da. Autobusean joan nahi duenak maiatzaren 28, ostirala, eguerdiko ordubata baino lehen izena eman beharko du udaletxeko idazkaritzan.

Eguerdian: Txistulariek San Adriandik bueltan datozenei harrera egingo diete herri sarreran.

14:30ean: Bazkaria herriko plazan (5 euro). Erromeriara joateko izena eman dutenek bazkaria doan izango dute (txartela San Adrianen jasoko dute).

16:45ean: Haurren pilota partidak pilotalekuan. Finalak jokatuko dira.

18:30ean: Herriko haurren eta Legazpiko dantza taldearen dantza saioa pilotalekuan txistulariek lagundurik.

Segura

Atsedeen Jubilatuen Elkarteak 25 urte bete ditu

Ospakizunetan murgilduta dabilta Atsedeen Jubilatuen Elkarteak. 25. urteurrena ospatzeko. Hainbat ekintza antolatuko dute.

Maiatzak 20, osteguna:

18:30ean: Brixka eta mus jokoak, Elkartean.

Maiatzak 21, ostirala:

18:30ean: Punttu eta tute jokoak, Elkartean.

Maiatzak 22, larunbata:

11:00etan: Toka, poto eta igel jokoak, Elkartean. Ondoren, sari banaketa eta hamaiketakoa.

Maiatzak 23, igandea:

12:00etan: Hildako bazkideen aldeko meza, Parrokian, Koruak abestuta.

14:00etan: Bazkideen arteko bazkaria, Elkartean.

Ondoren: Atsedeen Elkartearen sortu zutenei, omenaldia.

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Ormaiztegi

Taldeakako Segatxapelketa herrikoia, maiatzaren 29an

Hirugarren urtez jokatu da aurten taldeakako nazioarteko erako Segatxapelketa Herrikoia. Almitza Segatxapelketaren Europako txapelketetan ikusi eta bizi izan dituen esperientzia horiek Euskal Herrira ekarri nahi ditu. Horretarako, hizkuntza gutxiak dituzten beste herrialde batzuetako gonbidatuak ere izango dira parte hartzaileen artean, hala nola, Okzitaniarrak eta Kataluniarrak.

Gonbidatu hauen presentziak gain ordea, txapelketari festa kutsua eman nahian, bertako jendea parte hartzea animatzeko saiakera berezi bat ere egin nahi du Almitzak.

Bete beharreko baldintza nagusiak honako hauek izango dira: Segalariak launakako taldeetan lehiatuko dira eta beraien trebezia azaldu beharko dute, bai belarra mozteko azkartasunean eta baita txukuntasunean ere.

Bi kategoriatan banatuko da lehia, emakumezkoenean eta gizonezkoenean. Taldeak mistoak ere izan daitezke, eta emakumezko eta gizonezko kopuruaren arabera, kategoriatan edo bestean lehiatuko dira. Emakumezkoen kategorian ebaki beharreko saila 8x15m²-koa izango da eta gizonezkoenekoa berriz, 10x20m²-koa.

Segaren neurria librea izango da eta behar izanez gero, talde bakoitzeko zorroztaile bat onartuko da (hau izena ematerakoan adierazi beharko zaie antolatzaileei).

Ormaiztegi



Lizarra Karlistoen Museora txangoa, ekainaren 12an

Zumalakarregi Museoak Nafarroara txangoa antolatu du, Lizarran ireki berria den Karlistoen Museora ezagutzera eta 'La Batalla de Lacar' herri ikuskizuna ikustera. Txangoa ekainaren 12an izango da eta izena emateko epea aste bete lehenago amaituko da. Eguneko egitaraua hau da:

09:30ean: Irteera, Donostia Amara autobus geltokitik.

10:15ean: Irteera, Ormaiztegiko Zumalakarregi Museotik.

12:00etan: Lizarran, hamaiketako.

12:15ean: Karlistoen Museoa (Sarrera + bisita gidatua)

14:15ean: Bazkaria (Navarra jatetxea. Lizarra)

16:15ean: Lizarra (Javier Hermoso de Mendozak gidatutako bisita).

18:30ean: Lakarren, 'La batalla de Lacar' ikuskizuna.

20:00etan: Itzulera.

Izen-ematea: mzumalakarregi@gipuzkoa.net helbidean edota 943889900 telefonoan.



**JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA**


Santa Barbara Bidea z/g, URRETXU Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D ereduak.

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✕ Ospitaleko erizain laguntzailea
- ✕ Zaharren egoitzetan
- ✕ Eguneko zentruetan
- ✕ Lehen artapenetako laguntzailea
- ✕ Kontsulta pribatuetan
- ✕ Hortz-kliniketan laguntzailea
- ✕ Gaixoen zaintza



AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 7tik 13ra (biak barne)




Itsasoko Alegi auzokoek Jesus Loroñori omenaldia

Argazkia Itsasoko Alegi auzokoek 1958. urtean Jesus Loroño txirrindulariari egin zioten omenaldian ateratakoa da..

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Martin Irizar Irastorza (Zubimusu, Alegi auzoa), Jesus Loroño (txirrindularia), Migel Goitia (Atsuasin, Itsaso), ezezaguna eta Pablo Irizar Iurrita (autoaren eskuinean dagoena).

Beheko ilaran: Joxe Irizar Iurrita (Etxeberri, Alegi auzoa), Juan Aranburu (Ostatuzar, Alegi auzoa) eta Migel Irizar Irastorza (Zubimusu, Alegi auzoa).

PSIKOLOGI KLINIKOA	
 Argi Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkargokide zenbakia: E-2644 RPS: 420/01 AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN	Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

	NELSON BARBOSA
	ERREFORMAK
	Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea SEGURA	

	ZEGAMA OKINDEGI <i>Eskuz egindako ogi naturala</i> Intxausti eremua, 14G-14H nabeak ☎ 943 80 10 66 ZEGAMA SALMENTA PUNTUAU: Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. Lazkao: Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. Legorreta: Dorronsoro. Zegama: Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. Segura: Erosle. Idiazabal: Joxan harategia. Ormaiztegui: Inaki Erosle. Zumarraga: Rueda denda, Centro 100. Urretxu: Dia. Legazpi: Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.
---	---

	Erretegi bezala zabalik * Eguneroko menuak * Karta zerbitzua * Ospakizunak * Plater konbinatuak
Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO	

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea



ALTAMIRAN
JATETXEA
A A A

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



Bete-betean
asmatzeko
biderik onena!!



Berrikuntza ardatz duten
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

**Aurrematrikula epea
zabalik**

Goierri
eskola